



DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

Donostiako Udala - 2020ko Aurrekontuak

Donostiako Udalaren Erakunde Autonomoetako
aurrekontua erabiltzeko araua

Aurkibidea

I. TITULUA: ARAU OROKORRAK ETA KREDITUA ALDATZEA	5
I. KAPITULUA: ARAU OROKORRAK	5
1. Artikulua: Iraupena	5
2. Artikulua: Esparrua	5
3. Artikulua: Aurrekontu kredituak	5
4. Artikulua: Aurrekontu egitura	5
5. Artikulua: Kredituen lotura juridikoak	6
II. KAPITULUA: KREDITU ALDAKETAK	6
6. Artikulua: Kreditu aldaketak	6
7. Artikulua: Kreditu transferentziak	7
8. Artikulua: Kreditua sortzea sarreraren bidez edo kredituak gaituta	7
9. Artikulua: Ohiz kanpoko kredituak eta kreditu gehigarriak edo kreditu osagarriak	8
10. Artikulua: Kreditu hondarrak barne hartzea	9
11. Artikulua: Kredituak jaistea	9
II. TITULUA: GASTUEN GAINEAN	11
I. KAPITULUA: ARAU NAGUSIAK	11
12. Artikulua: Aurrekontu urtealdia	11
13. Artikulua: Gastu gestioaren faseak	11
II. KAPITULUA: AURREKONTU GESTIOA	11
14. Artikulua: Kreditu ez-erabilgarriak	11
15. Artikulua: Gastuak baimentzea	12
16. Artikulua: Gastuak erabiltzea	12
17. Artikulua: Obligazioak onartzea	12
18. Artikulua: Ordaintzeko agintzea	13
19. Artikulua: Ordain mota guztietarako irizpide orokorra	13

III. KAPITULUA: ADMINISTRAZIO PROZEDURA **15**

- 20. Artikulua: Langile gastuak **15**
- 21. Artikulua: Dirulaguntzak eta transferentziak **15**
- 22. Artikulua: Inbertsioak **17**

IV. KAPITULUA: JUSTIFIKATU BEHARREKO ORDAINAK, KUTXA FINKOAREN AURRERAKINAK ETA AURRETIKO ORDAIN APLIKATU GABEAK **18**

- 23. Artikulua: Justifikatu beharreko ordainak **18**
- 24. Artikulua: Kutxa finkoaren aurrerakinak **19**
- 25. Artikulua: Aurretiko ordain aplikatu gabeak **19**

V. KAPITULUA: OBLIGAZIOAK IRAUNGITZEA **20**

- 26. Artikulua: Obligazioak iraungitzea **20**

II. TITULUA: SARRERENA **21**

- 27. Artikulua: Diruzaintza **21**
- 28. Artikulua: Diruzaintza plana **21**
- 29. Artikulua: Diru sarreraren gestio faseak **21**
- 30. Artikulua: Dirua sartzeko konpromisoa **22**
- 31. Artikulua: Eskubideak aitortzea **22**
- 32. Artikulua: Onartutako eskubideak ordaintzea **22**
- 33. Artikulua: Berandutza interesak **22**
- 34. Artikulua: Diru sarrerak kontabilizatzea **23**

IV. TITULUA: AURREKONTUA LIKIDATZEA **24**

- 35. Artikulua: Gastuen egoerako aurretiko eragiketak **24**
- 36. Artikulua: Sarreraren egoerako aurretiko eragiketak **24**
- 37. Artikulua: Ekitaldia likidatzea **24**
- 38. Artikulua: Diruzaintzako soberakina **25**

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA: INFORMAZIOA **26**

AZKEN XEDAPENA **27**

**ADMINISTRAZIO IZAERA DUTEN UDAL ERAKUNDE AUTONOMOEN
ARAU BEREZIAK - 2019 URTEA** **28**

DONOSTIAKO MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA **28**

5. ARTIKULUA - KREDITUEN LOTURA JURIDIKOAK **28**

KIROLETAKO UDAL PATRONATUA **28**

9. ARTIKULUA.- KREDITUAK HANDITZEA **28**

I. TITULUA: ARAU OROKORRAK ETA KREDITUA ALDATZEA

I. KAPITULUA: ARAU OROKORRAK

1. Artikulua: Iraupena

Arauk aurrekontuak beste iraungo du eta honen indarraldia luzatuko balitz, arauak luzapenean ere izango ditu ondorioak.

2. Artikulua: Esparrua

Araua indarrekoa da Donostiako Udaleko administrazio erakunde autonomiadun guztietako aurrekontua erabiltzerakoan.

3. Artikulua: Aurrekontu kredituak

Gastuen Egoeran zehazturiko kantitateak mugari dira aurrekontuaren indarraldiarekiko eta lotesleak aurrekontu egiturarekiko zein honako arau honek xedatzen dituen lotura juridikoen mailekiko. Kredituak aurrekontura biltzeak ez du inongo eskubiderik sortzen.

Oro har, soilik beregana daitezke obligazioak urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte baimenduriko gastuak direla eta, legeek onartutako salbuespenak salbuespen.

4. Artikulua: Aurrekontu egitura

Aurrekontu nagusiaren egitura bat dator Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Udal Entitateen Aurrekontu Erregelamenduan jasotakoarekin.

Gastuen Egoeran jasotako kredituak sailkatu dira honako irizpide hauek erabilita:

- a) Programa: Erakunde autonomiadunek gauzatu beharreko programa eta egiturak oinarri.
- b) Ekonomia: Gastuaren ezaugarrien arabera.

Aurrekontu partida —sailkapen organikoa, programatikoa eta ekonomikoaren bilgunea den aldetik— izango da unitatea kredituak, horien aldaketak eta gastuak egiteko eragiketak erregistroan jasotzekorakoan.

Sarrera aurreikuspenak honako irizpide hauek erabilita sailkatu dira:

- a) Programa: erakunde autonomiadunek gauzatu beharreko programa eta egiturak oinarri.
- b) Ekonomia: Sarreraren ezaugarrien arabera.

5. Artikulua: Kredituen lotura juridikoak

Ezingo da gastu konpromisorik hartu gastuen egoeran onartutako kredituak gaindituz gero, horrelakoak mugatzaile baitira ondorengo lotura mailan:

- » *LANGILEEN ORDAINSARIAK*: Kapituluak.
- » *GASTUAK ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN*: Programa eta Kapituluak.
- » *INTERESAK ETA FINANTZA-PASIBOAK*: Kapituluak.
- » *TRANSFERENTZIA ETA DIRULAGUNTZA ARRUNTAK*: Programa eta Kontzeptuak.
- » *INBERTSIOAK ETA FINANTZA-AKTIBOAK*: Programa eta Artikulua.

II. KAPITULUA: KREDITU ALDAKETAK

6. Artikulua: Kreditu aldatetak

Lotura juridikoa gainditzen duen gasturik egin nahi izanez gero, kreditua aldatzeko espedientea izapidetu beharko da, kapitulu honetan xedaturikoak estu-estu beteta.

Edozein kreditu aldatu ahal izateko, zergatik aldatu nahi den funtsatu beharko da, baita azaldu ere aldaketa horrek nolako eragina izango duen aurrekontua gauzatzekoan xedaturiko helburuak lortzeari begira.

Kreditua aldatzeko espediente guztien gainean eman beharko du iritzia Udal Interbentzioak, eta hurrenkeran zenbakitu beharko ditu Kontu Nagusian justifikatzekotan.

Kreditu aldatetzat barik, kontularitza doitzetzat joko da Lotura Juridikoeko Poltsa batean aurrekontu sail bat sortzea, zenbatekoa aldatzen ez dela, gastu eginari buruzko argibide gehiago eskaintzen badu.

7. Artikulua: Kreditu transferentziak

Gastu bat egin nahi izanez gero hasierako kreditua behar bestekoa ez dela, baina kreditua lor badaiteke lotura juridiko desberdineko beste kontu sail batzuetatik gastuen egoerako osoko zenbatekoa aldatu gabe, kreditua transferitzeko espedientea onartuko da.

Erakunde Autonomoaren Lehendakariordeak honako transferentzia hauek egin ditzake:

- a) 1. kapituluko kontzeptuetatik 2., 3., 4., 6., 7., eta 9. kapituluetakoko kontzeptuetarakoak.
- b) 2. kapituluko kontzeptuetatik 1., 4., 6., 7., eta 8. kapituluetakoko beste kontzeptuetarakoak, programa beraren barruan.
- c) 3. kapituluko kontzeptuetatik 2., 4., 6., 7., 8. eta 9. kapituluetakoko beste kontzeptuetarakoak.
- d) 4. kapituluko kontzeptuetatik 2., 4., 6., 7., eta 8. kapituluetakoko kontzeptuetarakoak, programa beraren baitan.
- e) 6. kapituluko kontzeptuetatik 7. kapituluko beste kontzeptuetarakoak eta alderantziz, kredituaren xedea errespetatzen den bitartean, programa berean.
- f) 9. kapituluko kontzeptuetatik 2., 3., 4., 6., 7. eta 8. kapituluetakoko beste kontzeptuetara.

Espedienteak nahitaez eraman beharko du Udal Interbentzioaren txostena. Zuzendaritza Batzordeak egin beharko ditu gainerako kreditu transferentziak.

Transferentziak onartzen diren unetik bertatik bete beharko dira.

Zuzendaritza Batzordearen eskuduntza ez diren transferentzia onartuen berri emango zaio batzordeari Udal Interbentzioaren bitartez.

8. Artikulua: Kreditua sortzea sarreren bidez edo kredituak gaituta

Gastuen egoeran kreditu-sortzaile izan daitezke honako sarrera hauek:

- a) Pertsona fisikoen eta juridikoen ekarpenak edo ekarpen konpromisoak, erakunde autonomiadunarekin batera honen eskumeneko gastuak ordaintzekoak.
- b) Erakunde autonomiadunaren ondare ondasunak inorenganatzea.
- c) Zerbitzuak ematea.
- d) Maileguak berreskuratzea.

Erakunde Autonomoaren Lehendakariordeak baimendu beharko du sarrerengatiko kreditu sorrera.

Udal Interbentzioak espedientearen txostena jaulkiko du eta bere onarpena Zuzendaritza Batzordeari jakinaraziko zaio.

9. Artikulua: Ohiz kanpoko kredituak eta kreditu gehigarriak edo kreditu osagarriak

Ekitaldian egin behar izanez gero hurrengo ekitaldirako atzera ezineko gasturen bat horretarako aurrekontu krediturik ez dagoela, ohiz kanpoko kreditua onar liteke.

Krediturik izan arren, behar bestekoa ez balitz, honako baliabide hauetako bat edo beste erabilia finantzatuko da.

Ohiz kanpoko kredituak eta kreditu gehigarriak honako baliabide bat edo hainbat erabilia finantzatuko dira:

- » Diruzaintzako soberakin likidoa.
- » Aurrekontuak xedaturikoak baino likidatuta sarrera handiagoak edo sarrera berriak bildu izana.
- » Kreditu konprometitu gabeak bertan behera uztea edo murriztea, programaren helburuak aldatu gabe murriztu ahal izanez gero.

Espedientea bideratuko du gastua gehitu beharreko administrazio atalak eta Lehendakariordeak ontzat emana ez ezik, Udal Interbentzioaren nahitaezko txostena ere eraman beharko du.

Lehendakariordeak gastua aldatzeko proposamena aurkeztuko dio Zuzendaritza Batzordeari onar dezan.

Lahendakariari dagokio %5eko gehikuntza baino handiagorik ekar ez dezaten kreditu gehigarrientzat.

Aldatzeko proposamena, onartzen bada, onartzen den unetik bertatik bete beharko da.

10. Artikulua: Kreditu hondarrak barne hartzea

Aurrekontua likidatuta, Udal Interbentzioak honako hauek jasoko ditu egoera txosten batera:

- a) Gastu erabilgarrien saldoak, obligazioa onarturik ez dutenena.
- b) Aurreko ekitaldietan onartutako konpromisoak finantzatzeko gastu baimenen eta kreditu erabilgarrien saldoak.
- c) 6., 7. eta 8. kapitulueta kredituen saldoak.
- d) Sarrera eragindakoek bermatutako kredituen saldoak, derrigorrez jaso beharrekoak baitira.

Kreditu hondarren jasotze hori finantzatzeko behar beste finantza baliabide izanez gero jatorrizko ekitaldian, Lehendakariordeak onartuko du kreditu jasotzea aurrekontuaren likidazioarekin batera.

Jatorrizko ekitaldian eta indarrekoan finantza baliabiderik izan ezean, Lehendakariordeak, Udal Interbentzioaren txostena jaso ondoren, lehentasunak ezarriko ditu aurrekontuan jaso beharreko esku-hartzeetan, aurreko ekitaldiko konpromisoen arabera.

Kreditu jasotze horietarako indarreko ekitaldian bildutako sarrera berri edo handiagorik edo indarreko ekitaldian gastuen murrizketa behar izanez gero, Zuzendaritza Batzordeak onartu beharko ditu. Onartzeaz batera izango dira indarreko.

Kreditu hondarrak aurrekontuan jaso daitezke hori likidatu aurretik honelakoren bat izanez gero:

- a) Sarrera espezifikoeekin finantzatutako kredituak.
- b) Aurreko ekitaldian esleitutako kontratuak edo presazko gastuak, Interbentzioak segurtatzen badu ez dutela defizit sortuko.

11. Artikulua: Kredituak jaistea

Erakunde Autonomiaduneko Lehendakariordeak kredituak jaisteko eska diezaioke Zuzendaritza Batzordeari honako hauetakoren bat gertatuz gero:

- a) Aurreko ekitaldia likidatuta, kutzako soberakina negatiboa zianez gero.

- b) Sarreraren aurrekontua gauzatzerakoan, zenbateko nagusiak, oinarrian, hasieran begiz jotakoen oso desberdinak izatekotan.

II. TITULUA: GASTUEN GAINEAN

I. KAPITULUA: ARAU NAGUSIAK

12. Artikulua: Aurrekontu urtealdia

Gastuen egoerako kredituen zordun soilik kontabilizatuko dira ekitaldian egiten diren gastuetatiko obligazioak.

Salbuespenez, indarreko aurrekontuan honako obligazio hauek aplikatuko dira:

- a) Langileen atzerakinak.
- b) Jasotako kreditu hondarrak.
- c) Aurreko ekitaldiko gastuak, horiek egitea lehendik onartuta ez dagoela. Horrelakoetan, indarreko aurrekontua erabiltzeko programaren Patronatuko zuzendariak txostena aurkeztu beharko du segurtatzeko hori egitekotan ez zaiela kalterik edo murrizketarik egingo ekitaldiko betebeharrei.

13. Artikulua: Gastu gestioaren faseak

Gastu aurrekontua honako aldi hauek erabilita gestionatuko da:

- a) Gastua baimentzea.
- b) Gastua erabiltzea.
- c) Obligazioa onartzea.
- d) Ordaintzeko agintzea.

II. KAPITULUA: AURREKONTU GESTIOA

14. Artikulua: Kreditu ez-erabilgarriak

Aurrekontua erabiltzerakoan oreka ekonomiko-finantzarioa arriskuan jar dezakeenik gertatuz gero, Zuzendaritza Batzordeak kreditu batzuk izanda ditzake ez-erabilgarri. Batzorde berak izango du eskua halako kredituak berriro erabilgarri bihurtzeko.

15. Artikulua: Gastuak baimentzea

Gastua baimentzea da halako gastua egitea baimentzen duen ekintza, zenbateko jakin edo uzteko baten arabera eta ordain kreditu edo konpromiso kreditu jakin batean zorduntzekoa.

Gastuak baimentzeko eskuduntza Erakunde Autonomoko Gerentziak edo Artezkaritza Kontseiluak du, hala xedatzen baitute Donostiako Udalbatzak 2010eko abenduaren 27an onartutako Erakunde Autonomoaren Estatutueta 14. eta 17. artikuluek.

Gerentziaren eskuduntza badira, gastu baimenak honela izapidetuko dira:

- » Kudeatzailea harremanetan jarriko da saltzailearekin zenbatekoaren berri izateko, eta “eskaera” guztiz beteko du.
- » Kontularitzak txostena emango du kreditua dela adierazteko eta horrek gastua baimentzeko fasea amaituko du.
- » Kudeatzaileak ontzat emandako faktura behar besteko dokumentua izango da ordaintzeko agintzeari ekiteko.

Oro har, espedientea abiarazi beharko da gastua baimentzeko, kontabilitateko “A” dokumentua erantsita.

16. Artikulua: Gastuak erabiltzea

Gastua erabiltzeko ekintzaren bitartez halako gastu jakin bat gauzatzen da benetan, arauzko lege izapideak beteta, zenbateko eta baldintza zehatz zehaztutakoetan, onuradun edo esleipendun baten alde.

Gastua baimentzen duen organo bera izango da eskuduna hau ere onartzerakoan.

Oro har, espedientea abiarazi beharko da gastu erabiltzeko, kontabilitateko “D” dokumentua erantsita.

Espedienteari ekiterakoan zenbatekoa eta jasotzailearen izena zehatz jakinez gero, kontabilitateko faseak bateratuko dira “AD” dokumentuaren bitartez.

17. Artikulua: Obligazioak onartzea

Obligazioa onartzeko ekintzaren bitartez Administrazioari halako kreditu bat exiji dakioke behar bezala egiaztatu delako kreditu erabileraren xedeko prestazioa.

Hori onartzeko organo eskuduna Lehendakariordea izango da.

Espedientea abiarazi beharko da obligazioak onartu ahal izateko, eta kontabilitateko “O” dokumentua eraman beharko du erantsita.

Gastuaren ezaugarriak direla eta, obligazioa baimentzea, erabiltzea eta onartzea aldi berean gertatuz gero, kontabilitateko “ADO” dokumentua erantsiko da.

18. Artikulua: Ordaintzeko agintzea

Ordaintzeko agintzea esaten zaio onartutako obligazioa ordaintzeko Diruzaintzak emandako aginduari.

Lehendakariordea izango da organo eskuduna.

Fase horretan kontabilitateko “ME” dokumentua erabiliko da.

19. Artikulua: Ordain mota guztietarako irizpide orokorra

Arau orokor moduan, ordain guztiak egingo ditu Diruzaintzak, zorren antzintasuna dela irizpidea ordaintzeko lehenetsunak erabakitzerakoan.

Horrelako bideak erabiliko dira ordaintzeko:

- a) **Transferentzia.** Horixe izango da ordainbide ohikoa. Transferentziak sartuko dira hirugarrenak adierazitako banku kontuan eta hiru sinadura baimendunak — alkatea, kontu-hartzailea eta diruzaina (titularrak edo ordezkioak)— eramango ditu. Transferentziak onartzeko zerrendak bankua, kontu zenbakia eta eguna aipatu beharko ditu gutxienez.
- b) **Txekea.** Ohiz kanpoko ordainbidea da. Izendunak izango dira eta hiru sinadura baimendunak izango dituzte.
- c) **Esku dirua.** Oso ohiz kanpoko ordainbidea da, ordain txiki eta presazkoetarakoa. Jasotzaileak bere nortasuna egiaztatu beharko du, eta pertsona juridikoa izatekotan, kobratzeko ahalmena.

Ordainak jasoko dituzte aldeko obligazioaren onuradun diren pertsona fisiko edo juridikoen, kreditu lagapenak edo organo judizial edo administratiboek agindutako bahiturak izan ezean.

Salbuespen moduan, honela ere ordain daiteke:

- a) **Kontuan sartzea.** Bankuan helbideratzeko agindua dagoenetan erabiltzekoa: Elkarkidetza, finantza zama eta abar.
- b) **Kreditu txartela.** Ibilgailuetarako erregaia, autopistako bidesaria eta abarretan erabiltzekoa.

Ziurtapenak edo fakturak kobratzeko eskubideak lagatzea

- a) Horrelako aukera araututa dago urriaren 30eko 3/2007 Sektore Publikoko Kontratu Legean 201. artikuluan.
- b) Lagatzaileak epea gainditutako zor ordaindu gaberik izanez gero erakunde autonomorekiko edo udalarekiko, egingo da hirugarrenari jasotzea dagokion kantitatetik udalarekiko zorrera arteko zenbatekoaren gainean.
- c) Lagapena fede emanda jakinarazi beharko zaio Udal Interbentzioari eta ondorioak izango ditu jakinarazpena jasotzen den unetik.
- d) Ez da lagapen orokorrik onartuko kontratu oso baterako, ezta etorkizunerako lagapenik ere.
- e) Lagapena egin beharko da egiaztapen edo faktura jakin bakoitzerako.
- f) Lagapen dokumentuaz ohartermateko organo eskuduna izango da kontu-hartzaile nagusia edo horrek ordezkari izendaturiko interbentzioko funtzionarioa. Ohartermateko ekintzak barneko ekintza hutsa da eta lagapena onartzen dela adieraztea baino ez da.
- g) Ziurtapen edo faktura beraren bi lagapen adierazpen edo gehiago aurkeztuz gero, zenbatekoa gainditzen dutela, lagapenak onartuko dira Udal Interbentziara sartutako hurrenkeraren arabera.
- h) Lagapen dokumentua presta daiteke merkataritza artekaria, udaleko idazkari nagusia edo udaleko kontu-hartzaile nagusia aurrean dela. Idazkariaren edo kontu-hartzailearen aurrean eginez gero, ordezkari edo ahalmena notario dokumentuz egiaztatu beharko da.

Kredituak organo judizialak edo administratiboak bahitzea

Horrelakoetan ordain agindua organo bahitzailearen alde emango du udalak, bahitua nor den adierazita.

III. KAPITULUA: ADMINISTRAZIO PROZEDURA

20. Artikulua: Langile gastuak

Hilabeteko nominak izango dira hileroko ADO dokumentuaren euskarria.

Gizarte Segurantzari eta Elkarkidetzari ordainduriko kuotak ere, halaber, hileroko ADO kontabilitate dokumentuaren funts euskarria.

Udal langileei zerbitzuagatik emandako sariak araudi berezi batek arautzen ditu eta, ezargarri izanez gero, Alkatetzak 1999.eko azaroaren 15ean emandako zirkularrak, alkatearentzako eta zinegotzien ordezkarietzako zerbitzua dela-eta eman beharreko sari eta ordainak arautzen ditu eta.

21. Artikulua: Dirulaguntzak eta transferentziak

- 1) Erakunde Autonomoak diru laguntzak eman ahal izango dizkie, Gastuen Egoerako 4. eta 7. kapituluetakoa kredituen kontura, erakunde publiko nahiz pribatuei, bai eta partikularrei ere, baldin eta onura publikoko, gizarte intereseko edo xede publikoa sustatzeko jarduerak egiten badituzte.
- 2) Ematen dituen diru laguntzek honako lege-arauetan xedatutakoa bete beharko dute: 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 18koa, Diru Laguntzena; 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Diru Laguntzen Lege Orokorraren Araudia onartzekoa, eta kasuan kasuko diru laguntzak arautzen dituzten oinarriak.
- 3) Diru laguntzak emateko prozedura arrunta konkurrentzia lehiakor araubidean izapidetuko da.

Honako diru laguntza hauek zuzenean eman ahal izango dira. Hitzarmenen bidez bideratu ahal izango dira, eta hitzarmen bakoitzean ezarriko dira aplikatu beharreko baldintza eta konpromisoak:

- » Aurrekontuan berariaz xedatutako diru laguntza izendunak.
 - » Lege mailako arau batek inposatuak.
 - » Diru laguntza horien interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa frogatuta badago, edo deialdi publikoan ateratzea zail egiten duten beste arrazoi batzuk badaude, behar bezala egiaztatuta
- 4) Gastuaren kudeaketaz arduratzen den zerbitzuak izapidetuko ditu diru laguntzak emateko, itzultzeko, deuseztatzeko eta atzera egiteko espedienteak. Zerbitzu horrek, bestalde, ziurtagiriak eskatu eta egiaztatu beharko ditu, diru laguntza ematean eskatutako inolako betekizunik bete gabe utzi ez dela begiratu eta, organo izapidegileak alderdi horiek ziurtatzeko egiaztatzea eman eta gero, justifikazioa onartzea proposatu. Justifikazioa onartzeko organo eskudunak diru laguntzak eman zituen organo bera izango da, Tokiko Gobernu Batzordeari dagozkionak izan ezik. Kasu hauetan dagokion zerbitzuak egingo du.

Kontu-hartzailatza Nagusiak, bere ikuskatze lana betez, honakoak kontrolatuko ditu: deialdiaren oinarriak, emateko proposamenak, justifikazioaren onarpenak, bai eta diru laguntzak itzuli, deuseztatu eta atzera egiteko proposamenak ere, halakorik bada.

Diru laguntzak ez dira inola ere emango edo ordainduko pertsona nahiz erakunde onuradunak ez badituzte beren zerga betebeharrak (Zerga Administrazioako Estatu Agentzia, Foru Ogasuna eta Udal Ogasuna) eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneratuta, ez eta Donostiako Udalarekin edo haren mendeko erakunderen batekin egindako zorreatatik behartze bidez kobratzeko prozeduretan sartuta badaude ere, harik eta zor horiek egiaz ordaintzen eta kitatzen edo betetzen diren arte, salbu eta zor horiek geroratuta edo zatikatuta badaude, edo haien betearaztea etenda badago.

Epez kanpoko zorrak, likidatuak eta galdagarriak konpentsazio-prozeduraz ordainduko dira.

- 5) Diru laguntzen kudeaketan prozedura azkartzeko eta aurrekontuaren kudeaketa aurreratzeko, aukera ematen da diru laguntzak aurretik izapidetzeko. Hala, diru laguntzak emateko deia diru laguntzak ebatziko diren aurrekontuko ekitaldia baino ekitaldi bat lehenago onartu ahal izango da, betiere gastua egiten bada diru

laguntza ematen den urtean eta baldintza hauetakoren bat betetzen bada:

- a) Udal Aurrekontuan normalean egotea kreditu egoki eta nahikoa egin nahi den gastua aurrekontuarekin ordaindu ahal izateko.
- b) Kreditu egoki eta nahikoa egotea gastua egiten hasi behar den ekitaldiari dagokion Udal Aurrekontuaren Proiektuan.

Kreditua badagoela egiaztatzeko agiriaren ordeztan, aurrekontu zerbitzuak txosten bat egingo du eta bertan aditzera emango du aurreko baldintzetako bat betetzen dela.

Izapide aurreratuak egiten direnean, deialdian ageri den gehieneko guztizko zenbatekoa gutxi gorabeherakoa izango da eta, hortaz, deialdian berariaz adierazi beharko da diru laguntzak emango direla baldin eta kreditu egoki eta nahikoa badago diru laguntzak emateari buruzko ebazpena hartzen denean. Onartutako aurrekontuko kreditua aurreikusitakoa baino handiagoa bada, organo kudeatzaileak erabaki ahal izango du deialdiari aplikatzen zaion ala ez, ebazpena hartu aurretik gastua onartzeko espedientea bideratu eta gero, beste deialdirik eginOnartutako aurrekontuko kreditua aurreikusitakoa baino handiagoa bada, organo kudeatzaileak erabaki ahal izango du deialdiari aplikatzen zaion ala ez, ebazpena hartu aurretik gastua onartzeko espedientea bideratu eta gero, beste deialdirik egin beharrik gabe.

22. Artikulua: Inbertsioak

Espedientean honako dokumentu hauek jasoko dira:

- a) Aurrekontua, kostu osoaren berri emanda.
- b) Baldintzen orriak.
- c) Amortizazioa, ustezko erabilera aldia adierazita.
- d) Geroko funtzionamendu gastuen eta ustezko zaintze gastuen adierazpena.
- e) Aurrekontu erabilaren proposamena.

IV. KAPITULUA: JUSTIFIKATU BEHARREKO ORDAINAK, KUTXA FINKOAREN AURRERAKINAK ETA AURRETIKO ORDAIN APLIKATU GABEAK

23. Artikulua: Justifikatu beharreko ordainak

Justifikatu beharreko ordain aginduak emango dira beharreko erosketak eta zerbitzuak erosteko, horrelakoak ezin badira ordaindu kutxa finkoaren aurrerakinen bitartez eta ezin badira egiaztagiriak eskuratu erosi aurretik.

Gastua baimentzeko organo eskuduna izango da justifikatu gastua onartu behar duen berbera.

Gastua justifikatu beharko da hartutako dirua erabili bezain laster eta, nolahi ere den, dirua jaso eta 3 hilabeteko epean, ekitaldia itxi aurretik.

Dirua zaintzeaz onuraduna bera arduratuko da.

Ezingo da justifikatu beharreko ordain agindu berririk eman aurrekontu kontzeptu berberak direla-eta onuradunak oraindik justifikatu beharreko dirurik izanez gero bere esku justifikatzeko gehieneko epea gainditu duela horren gaineko konturik aurkeztu gabe.

Kontabilitate Atalak errolda batean jasoko ditu justifikatu beharreko gastuak, eta zerrendan onuraduna, kantitatea, helburua eta justifikatzeko azken eguna agertuko dira.

Interbentzioak honako hauek fiskalizatuko ditu eginiko gastuetan:

- » Kontratazio arauak bete izana, arauzko atxikipenak egin izana, BEZ eta beste zerga batzuk behar bezala aplikatu izana eta abar.
- » Egiaztagiriak jatorrizkoak izatea eta aurrerakina baimentzeko adierazitako gastuekin bat etortzea.
- » Justifikazioa alorraren Zuzendariak edo Lehendakariordeak onartu izana.
- » Arauzko epean justifikatu izana.

Interbentzioak Zuzendaritza Batzordeari adieraziko dio zeintzuk diren behar bezala egiaztatu gabeko kontuak, erantzukizuna ez ezik, dirua itzultzeko ere eska dezan beharrezkoa izanez gero.

24. Artikulua: Kutxa finkoaren aurrerakinak

Dieta, lokomozio, ikastaro, atezainaren fondo eta antzekoetarako aldiroko gastuetan, justifikatu beharreko gastuak Kutxa Finkoaren aurrerakin gisa eman daitezke.

Orokorrean, kutxa finkoaren aurrerakintzat joko dira presazko beharretarako egiten diren diru hornidurak, gerokoan ekitaldiko aurrekontuan jasotzekoak direnez gero.

Horrelakoak baimentzeko organo eskuduna izango da gastua baimentzeko organo eskudun bera.

Kutxa finkoaren aurrerakinak ordainduko dira Diruzaintzaren kontutik.

Kutxa finkoko aurrerakinak jasotzen dituztenek, beren diruzaintza baliabideak gutxitu eta berriz jartzea zentzuzkoa denean justifikatuko dituzte egindako gastuak, gehien-gehienez, aurrekontu ekitaldia amaitu aurretik.

Fondoak berriz jartzeko Ordainketa Aginduak egingo dira justifikaturiko kopuruei dagozkien aurrekontuko kontzeptuetan oinarrituta.

Onuradunak berak du jasotako dirua zaintzeko ardura.

Ekitaldi bakoitzaren abenduaren 31n Fondoan Interbentzioak fiskalizatuko du kutxa finkoaren aurrerakinaren egoera eta horretarako aztertuko ditu egun horretara arte aurkeztutako gastu egiaztagiriak, kontu korrontearen estraktu eguneratua eta jasotzailearen adierazpena, oraindik dirurik baduelakoa.

25. Artikulua: Aurretiko ordain aplikatu gabeak

Aurretiko ordain aplikatu gabeak emango dira egin beharreko gastuak hainbat aurrekontu sailetan jaso behar badira, ordaina emateko unean nola banatuko den jakiterik ez dagoela. Talde horretan jaso behar dira udal langileei ikastaroetara joateko emandako aurretiko ordainak, aurretik emandako zenbatekoak barne hartzen dituela ikastaroaren matrikula, dietak, bidai gastuak eta abarrak.

Gastua justifikatu ostean aurretiko ordaina arautzeari ekingo zaio.

Gastua baimentzeko organo eskudun izango da aurretiko gastua baimentzen duen berbera.

Gastua justifikatu beharko da hartutako dirua erabili bezain laster eta, nolahi ere den, dirua jaso eta hiru hilabeteko epean, ekitaldia itxi aurretik.

Jasotzailea bera arduratuko da dirua zaintzeaz.

Kontabilitate Atalak aurretiko ordainen errolda eratuko du eta bertan zerrendatuko dira jasotzailearen izen-deiturak, emandako kantitatea, xedea eta justifikatzeko azken eguna.

Interbentzioak Zuzendaritza Batzordeari adieraziko dio zeintzuk diren behar bezala egiaztatu gabeko kontuak, erantzukizuna ez ezik, dirua itzultzeko ere eska dezan beharrezkoa izanez gero.

V. KAPITULUA: OBLIGAZIOAK IRAUNGITZEA

26. Artikulua: Obligazioak iraungitzea

Erakunde Autonomoak halako onuradun jakin baten alde onartutako obligazioak ordaindu beharra 5 urteren ondoren iraungitzen da.

Interbentzioak, obligazioak iraungi ahala, iraungitzeko proposamena aurkeztuko du, espedientearen horren gaineko egiaztagiria jasota.

Lehendakariordeak onartu beharko ditu obligazio iraungiak.

II. TITULUA: SARRERENA

27. Artikulua: Diruzaintza

Diruzaintza osatzen dute erakunde autonomiadunaren finantza baliabide guztiek, aurrekontu barneko zein kanpoko eragiketen ondoriozkoek.

Udal Diruzaintza Publikoa arautuko da kutxa bakarraren hastapenaren bitartez.

Hilabete bakoitza amaitu eta ondorengo hamar egunotan Udal Diruzaintzako fondoak kontatuko ira kontu-hartzaileak fiskalizatuta eta Lehendakariordeak baimendurik.

Ez da aurrekontu barneko zein kanpoko fondorik sartuko kontu-hartzailearen oharmandako arauzko kontabilitate dokumenturik gabe.

28. Artikulua: Diruzaintza plana

Diruzaintzak egin behar du urteko diruzaintza plana.

Diru baliabide likidoak gestionatuko dira ahalik eta etekinik handiena lortzea irizpide dela, nolana ere den beti bermaturik egongo dela obligazioen epemugak betetzea.

Aurrekontua erabiltzerakoan lorturiko etekinak erabiliko dira obligazio guztiak asebetetzeko. Halakoxede jakin baterako sarrera berezikiak eta aurrekontuz kanpoko etarakoak arautzeko kutxa bakarraren hastapena erabiliko da, gastu aurrekontua gauzatzerakoan baliabideen xedea ez bereizteko moduan. Sarreraren xedea agerian utziko da likidazioan.

29. Artikulua: Diru sarreraren gestio faseak

Sarrera aurrekontua gestionatuko da, gehienez ere, honako fase hauek kontuan:

- a) Sarrera konpromisoa.
- b) Eskubideak aitortzea.
- c) Onartutako eskubideak kobratzea.

30. Artikulua: Dirua sartzeko konpromisoa

Horrelako ekintzaren bitartez erakundea edo pertsona publikoak zein pribatuak bere burua behartzen du Udalarekin akordio edo hitzarmen bidez halako gastu jakin bat osorik ala alde ordaintzera.

31. Artikulua: Eskubideak aitortzea

Horrelako ekintzaren bitartez Patronatuaren aldeko eskubide bat ordaintzen da sarrera bakoitzaren arau berezien arabera.

Dirulaguntzetan eta transferentzietan eskubidea aitortuko da xedaturiko baldintza guztiak beteta, dirulaguntza eta transferentziak exijitzeko modukoak izatean.

32. Artikulua: Onartutako eskubideak ordaintzea

Horrelako ekintzaren bitartez lehendik edo batera aitortutako eskubidea ordaintzen da Diruzaintzan sartuta.

33. Artikulua: Berandutza interesak

Berandutza interesak eransteko eta likidatzeko aldiaren hasiera Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Arau Nagusiak eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Bilketako Araudiak zehaztuko dute.

Orokorrean, berandutza interesa izango da diruaren legezko interesa gehi %25, foru arauren batek bestela xedatu ezik.

Interesak kalkulatu eta ordainduko dira zorraren printzipala ordaintzeaz batera. Bahituriko ondasunak edo bermeak gauzatu nahi izanez gero, interesak kalkulatuko dira eskubidea kito egin ondorengo likidazioaren gainean. Dirua edo kontu korronteak bahiturik egonez gero, interesak kalkulatu eta hartuko dira bahitzeaz batera.

34. Artikulua: Diru sarrerak kontabilizatzea

Udalak jaso beharreko sarrerak gauzatuko dira halako aurrekontu kontzeptu jakin baterako sartzeko agiriaren bidez, Interbentzioak dirua sartu dela egiaztatukoan gauzatuko dela.

Sarrerak edozergatik ezin badira kontabilizatu beren aurrekontu kontzeptuan, aplikatu gabeko sarrera moduan kontabilizatuko dira eta ondorio guztietarako, kutxa bakarrean gordeko dira.

Departamentuek informaziorik izanez gero dirulaguntza ematearen gainean, Udal Diruzaintzari edo Interbentzioari jakinaraziko diote, horren bilakabidearen jakitun egon daitezen unean-unean. Dirulaguntzak erakunde autonomiadunek eurek justifikatu beharko dituzte eta Interbentzioa jakitun jarriko ere bidalitako egiaztatze dokumentuak direla eta.

Diruzaintzak kontrolatuko du kontabilitatearen arabera formalizatzeko dauden bankuetako kontuetan diru sarrerak ez egotea, zerga bilketako kontu murriztuak izan ezik.

IV. TITULUA: AURREKONTUA LIKIDATZEA

35. Artikulua: Gastuen egoerako aurretiko eragiketak

Ekitaldia amaitutakoan egiaztatu beharko da obligazio aitortpena sortzen duten udal erabaki guztiek kontabilitateko "0" fasean jasota daudela.

Emandako dirulaguntzak ordaintzea halako baldintza batzuk betetzearen menpean egonez gero, "0" fasean kontabilizatu beharko dira, dirua jasotzea baldintzaturik egongo dela baldintza horiek guztiak bete arte.

Oro har, abenduaren 31 arteko erosketak, obra, zerbitzu edo gastuetako obligazioak ekitaldian jasoko dira hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 31 baino lehen onartuz gero.

Aurrekontu ekitaldiko azken egunean onartutako obligazioak betetzearen menpean ez diren kredituak baliogabeturik geratuko dira, salbuespen bakarra izango dela Araudi honetako 12. artikulua.

36. Artikulua: Sarreraren egoerako aurretiko eragiketak

Abenduaren 31 arte aitortutako eskubide guztiak likidatu beharreko aurrekontuan erabili behar dira.

Aurreko artikuluen arabera aitortutako obligazioek onartutako mailegu gauzatu edo erabili gabekoetako dirua behar izanez gero, ekitaldian kontabilizatzea dago aitortutako eskubideetatiko behar besteko zenbatekoa.

37. Artikulua: Ekitaldia likidatzea

Ekitaldia itxiko eta likidatuko da ondorioak abenduaren 31n kokatuta.

Likidazioaren egoera-erakusleak hurrengo urteko martxoaren 1a baino lehenago egin behar dira.

Lehendakariordeak onartuko du likidazioa eta Zuzendaritza Batzordea jakitun jarri beharko du hurrengo osoko bilkuran.

38. Artikulua: Diruzaintzako soberakina

Barne izango du fondo likidoak eta kobratzeko dauden eskubideen batuketa, horri kenduko zaiola ordaintzeko dauden obligazioen eta nekez gauzatuko diren eskubideen zenbatekoa.

Nekez gauzatuko diren gastutzat joko dira bi urtetik gorako antzintasuna dutenak, eskubidearen edo zordunaren ezaugarriek bestelakotzat jotzea justifikatu ezean.

Diruzaintzako soberakina aldekoa bada, hurrengo ekitaldiko kreditu aldaketak finantzatzeko erabil liteke.

Diruzaintzako soberakina aldekoa bada eta, krediturik ez egoteagatik, kitatuko den ekitaldian kontabilizatu ezin diren gastuak baldin badaude, egin daitezken administrazio-jardunez gainera, berariazko aurrekontu-aldaketa bat bideratuko da Diruzaintzako Soberakinarekin finantzatuko dena. Azken hau, Alkateagatik onartua izango da, Kontuhartzaitzaren aurretiko txostenarekin, eta Udalbatzagaratik ezagutua, ekitaldiaren batera ala, bere kasuan, gero.

Diruzaintzako soberakina negatiboa bada, Interbentzioaren txostena jaso ondoren, Lehendakariordeak proposatuko dio Udalbatzari nolako neurriak hartu finantza oreka berriro lortzeko.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA: INFORMAZIOA

Udal taldeek noiznahi eskura dezakete aurrekontu balantze jatorrizkoaren aldakia.
Zuzendaritza Batzordean balantzea hiru hilean behin azter daiteke.

AZKEN XEDAPENA

Lehendakariordeak ahalmena du honako Arau hau garatu eta argitzeko behar beste ebazpen emateko.

ADMINISTRAZIO IZAERA DUTEN UDAL ERAKUNDE AUTONOMOEN ARAU BEREZIAK - 2019 URTEA

Udal Erakunde Autonomoek dituzten ezaugarriak kontutan izanik, beraien Aurrekontuaren Exekuziorako Arautegiaren honako Eranskina aurkezten da. Bertan, kasuan kasuko Erakunde Autonomoari aplikatu beharreko arau bereziak jasotzen dira ondoren zehazten den bezala:

DONOSTIAKO MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA

5. ARTIKULUA - KREDITUEN LOTURA JURIDIKOAK

“Ezingo da gastu konpromisorik hartu gastuen egoeran onartutako kredituak gaindituz gero, horrelakoak mugatzaile baitira ondorengo lotura mailan:

.....

GASTU ETA ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN: Kapituluak.

.....”

KIROLETAKO UDAL PATRONATUA

9. ARTIKULUA.- KREDITUAK HANDITZEA

“Honako hauek berez eta besterik gabe handitu daitezke, sarrera gehiago lortuz gero: (3)

Kirol Ekintzengatiko sarrerak (Zerbitzu emateagatiko sarrerak)

→ Beste enpresa batzuek egindako lanak (Kirol ekintzak gauzatzea)

“..... kreditu orokorra handitu daitekeela jotzen da”

Sarrera gehiago izanez gero, beste kasu batean ere handitu daiteke kreditua: Gastuen Aurrekontuko Kirol Ekintzak programako 227. partidaren kasuan, hain zuzen. Partida horretan kirol ekintzak egiteko gastuak jasotzen dira. Espero den baino matrikula gehiago egiten badira, gastu gehiago izaten dira, baina sarrera gehiago ere bai.

